

Pilartxo Etxeberria

EHUko irakaslea

Euskararen kantua zergaitik honen xamur eta horren harrapagaitz?

■ Behinola, arratsalde pasa, hitza eta pitza ari ginen Teresa eta biok (Jose Luis aldameanean genuen, eszeptiko antzera baina azti zegoen). Barne-kotak, fakultateko kontuak, ingurumariko arazoak, ...genituen hizpide. Gure hitz jorra horretan guztia atzekoz aurrera eta azpikoz gainera jarri genuen zorioneko ginen, amets gozoen eremuan. Halako batez, ezustean.: «euskara ikasteko *amatxo bat behar du*» esan zidan Teresak. Bapatean, sekulako zirrarra sentitu nuen, esanaldi horrek aztoratu ninduen, baina eroarena jo eta atzera, atzekoari helduz, solasari zabaldu genion bidea.

Geroztik bidelagun dut esanaldi hori, eten-gabe ari da atejoka. Ate-leihoak zabaltzeko ordea, eguzki printzaren bat aurkitu behar eta horrek ematen ditu lanak. Ez dabil oker Teresaren eskaera, euskararen kantua ikasi nahi du hitzen aurretik, kantuak emango diolako aukera paregabea, horrekin batera erritmoa hartzeko eta oharkabean hots kateatuak, hau da, bokalak eta kontsonanteak silabaz silaba.

Harrigarria dirudien arren, esperimentu bidez egindako ikerketak lekuko, haurra mundura jaio aurretik, amaren baitatik eta amaren sabelean jasotzen, prozesatzen eta gogo-gorputzetan memorizatzen omen hizkuntzaren kantua. Jaio ondorengo lehen egunetan gai omen da haurra, emakume askoren doinu-moldeetatik, bere amaren kantua eta ahots kalitatea bereizteko eta intonazioa izango du adierazpide eta euskarri *avant même qu'il en soit sorti du stade du babil*. Bestalde, badakigu haurrak lehen hilabeteetan berebiziko gaitasuna duela bere hizkuntzako ez diren bereizkuntza fonetikoak (bistan da, prosodia barne) ohartzeko baina hilabeteak aurrera egin ahala, bere hizkuntzako ez diren bereizkuntza fonetikoetarako sentiberatasun horrek behera egingo du, lausoak estaliko du, bestela

Euskararen kantua ez da hizketa-hotsak baino abstraktuagoa; emozioaren eta hunkipenaren barrutikoa dugu bete-betean. Hala ere, euskaldun berriek harresiak jartzten dizkiote

esan, bere hizkuntzak mugatuko du haurraren hasierako jakituria oharmenean eta ekoizpenean.

Urtebetetik aurrera, esan liteke, oharrenaren apaltzea baino areago horren berrantolatzea etorriko dela egokituz ama-hizkuntzara prosodia eta ahoskuntzari dagokion motrizitatea. Hau da, segmentuz gaidiko kantuak esango die hizketa-hotsei zein erritmotan, zein iraupenetan, zein bilakabide eginez, ... antolatuta behar dituen ebakinek.

Irakasgai ederra ematen digute, halaber, gorraireak jotako haurren hizkuntz irakasleek. Zalantzarik gabe, aitortzen dute, hizketa-hotsak zuzen ahoskatzeko irakasten hasi aurretik, irakatsi behar zaiela armasketaren, gorputzaren eta kantuaren erritmoa eta horiek barnaritzen dituztenean gai direla ikasleak, hizketa-hotsak kateatuz ongi ekoizteko.

Ederki asko zekien Teresak *amatxo* zergaitik behar zuen eta oraindik, bila dabil baina kantari. Ni neu ere, Juan Carlos Perezek *Hau berua* bigarren diskoaren aurkezpenean esan zuenarekin bat nator: «*musikan oinarritzen naiz letretan baino gehiago, zeren eta musika, nire ustez, askoz ere intuitiboagoa eta abstraktoagoa da.*»

Euskararen kantua ez da hizketa-hotsak baino abstraktuagoa; emozioaren eta hunkipenaren barrutikoa dugu bete-betean. Hala ere, euskaldun berriek harresiak jartzten dizkiote. Leherre-nak eginda ere, nekez erdiesten dute euskararen doinu *berua*. Murrua agian irakasleok eraikitzen dugu kantua irakasteko bide egokirik aurkitzen ez dugulako edo ezagutzen ez dugulako. Jabe-kuntzaren prozesu-ikerkuntzak bide ezinago oparoak eskaintzen ditu zenbait mamu uxatzeko ilunak argituz. Helduen hizkerak aztertzeari uko egin gabe, haurrenari seriooki heldu beharko genioke kontrolpean ditugun emozioetatik ihes egiten duen hizkuntz kantua besarkatzeko. ■

Ramon Labaien



Gauzak hankaz gora

Galindo Jenerala itzalean, eta kalean izugarriko astindua, norbaitek munda hankaz gora jarri balu bezala. Eta ez da harrizkoa, Espainiako Estatuan ez zelako behin ere horrelakorik ikusi, Goardia Zibilaren buruzagi bat kartzelan sartzea, edozein jittokume gisa. Sortu den istiluan, denetatik ari gara entzuten, denetatik eta oraindiko zentzu duenik gutxi. Haserrea batetik, haserre gordina, askoren iritzian omenaldi bat merezi zuen gizona zigortu delako. Bestetik, desafioa, Barrionuevoren estilo horretan, bere buruari leporatuz egin direnen ardura osoa. Hori bai, lergo utziz, badaezpada, Intxaurren gertatutakoak zuzen-bide estuenean izan zirela eta inentziorik hobenean. Tristura ere erakutsi zaigu. Mayor Oreja Jaunaren hitzetan, eta kezka eta baita ere bildurra, Galindorenak krisialdi nagusi baten atek ez ote dituen irrekio. Egia izanik batzuen eta bestean artean, saildu ari direla bihurtzen Jeneral hori. Badirudi, honetan, Epalea dela hobendun erregube dena errudun bihurtu nahian. Hau bai dela gauzak hankaz gora jartzea. Azken finean herriar besterik ez den bat espetxeratzeak, Epaleak arrazoin aski ikusten dituelako, horrelako ekaitza sortzeri badu, zerbaiz dabil zeharo oker Estatuan. Kezka izanik, Aznar Jaunak kemen nahikoa duen gauzak zuzentzeko.

Txillardegia



Kontrakarra

Herri baltikoak (Estonia, Latvia eta Lituania), Sobietar Batasunaren garaian Federazioko aurreratuenak izanik, eslabiar etorkinen kokaleku bihurtu ziren. Eta Riga latviar hiriburua, bereziki, errusiar aintzindari bihurtu zen. Bertakoak, hitz batez, gutxiengo; eta erresiarrek nagusi.

Euskal Herrian ongi dakigu gertaera demografiko horren berri.

Latviak (eta gainerako herri baltikoek) bere nazio-askatasuna berreskuraturik, joerak errortik aldatu dira. Latvia ez da gaur Moskuren koloni-aire bat, eta errusiarrek ez dira jadanik jaun eta jabe. Latvia, Latvia da; eta Estonia, Estonia.

1994an 14.223 errusiarrek egin dute alde Latviatik (gehien-gehienak Errusi aldera); eta gauza bera 1.644 bielorusiarrek eta 2.683 ukrainiarrek. Oro har jaioterrira itzuli dira.

Azkeneko bost urte honetan, horretara, 138.300 biztanle *galdu* ditu Latviak. Eta egoera ekonomikoa hobetzen ari ez denez, ezek ez du kontrako joerarik iradokitzen.

Gaur egun Latviak 2.529.000 biztanle ditu; % 5,1 gutxiago azkeneko Erroldan baino. Latviarren proportzioa, dena dela, gorantza. Iruzkinak oro sobera.

L A P H I T Z A

